

## Haurreskolak Partzuergoan lan baldintzak hobetu, hezkuntza eraiki!

**Familia agurgarria:**

Pasa den ikasturtean EAEko unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoko sektore ezberdinetan eta bereziki Haurreskoletan jarraipen handiko greba eta mobilizazioak burutu genituen, ikastetxeak, langileak, haurrak eta familiak azken urteetan pairatzen ari garen egoera larria salatu eta egoerari buelta emateko ezinbestekotzat jotzen ditugun neurriak plazaratu asmoz.

Eusko Jaurlaritzak eta Haurreskolak Partzuergoak, ordea, oraindik ez diete gure aldarrikapenei erantzunik eman. Sektore ezberdinetako Negoziazio Mahaiak deitzeko ariketa formala egin duen arren, egoera larri honi buelta emateko inolako neurri zehatzik ez du ezarri mahai gainean.

Azken hilabeteetan plazaratu moduan, LAB, STEILAS eta ELA sindikatuon ustez ondorengoak dira Haurreskolak Partzuergoari dagokionez, kontutan hartuta 2009tik lan hitzarmena eta soldata izoztuta ditugula, egungo egoerari irtenbidea ematen hasteko adostu beharreko neurriak:

- **Kudeaketako eta Hezitzaile langileen Lanpostuen Zerrenda eta egonkortasuna bultzatu. Haurreskolak Partzuergoko langileon** behin-behinekotasun tasa % 41ekoa da, kudeaketa langileena %100ekoa.
- **Geletako ratioak berdintasunean oinarritutako irizpideekin aplikatu.**
- **Ordezkapenak bertaratze orriarekin ez baldintzatu.**
- **Lizentzia, baimenak eta txanda egunak ordezkatu.** Egin ezean lankideen lan karga handitzen da eta zerbitzuaren kalitatea, berriz, kaskartu.
- **Haurreskola txikietan familia guztiei 8 orduko zerbitzua eskaintzea.**
- **Koordinazio liberazio orduak irekita dauden gela kopurua izatea erreferentzia.**
- **Koordinatzaile ordeak plusa proportzionalki jasotzea** (hilabete batera heldu ezean).
- **Erretiroa erraztu, errelebo kontratuarekin akordio batera heldu.** Gaurko errelebo kontratuen araudiaren aplikazioa 2018ko abenduaren 31n amaitzen da.
- **Bajak lehen egunetik %100ean ordaindu.**
- **Eroste ahalmena berreskuratu.**
- **Dekretu bidezko ordezkoen araudirik ez! .**
- **Haurreskolen doakotasuna.**

Eta hezkuntza publikoko gainontzeko sektoreen aldarrikapenekin bat eginez:

 Hezkuntza inbertsioa handitzea (gutxienez Europar Batasuneko bataz bestekoa, progresiboki %6ra iritsiz).
 LOMCE Euskal Herriko gure ikastetxeetatik ateratzea eta honen moldaketa hutsa den Heziberri bertan behera uztea.

 Hezkuntzaren merkantilizazioa alde batera uztea, egungo desorekak gaindituz hezkuntza garapen pertsonal eta sozial integralerako tresna izan dadin (kohesio soziala, integrazioa, aniztasuna, berdintasuna, hezkidetza oinarri).
 Ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen euskarazko murgiltze eredua garatzea.
 Balizko Hezkuntza legearen aurrean sindikatu, hezkuntza eragile eta herritarron parte hartzea eta iritzia aintzakotzat hartzea.

Orain arte Eusko Jaurlaritzak eta Haurreskolak Partzuergoak ez dute proposamen hauen inguruko benetako negoziazio asmorik agertu. Hau dela eta Hezkuntza Sailak eta Haurreskolak Partzuergoak greba eta mobilizazio dinamika mantentzea beste biderik ez digute uzten.

Irailetik aurrera mobilizazio ugari burutu ditugu eta gaur Haurreskolak Partzuergoko hezitzaile eta langileok hasiera emango diegu, Unibertsitatez kanpoko Irakaskuntza publikoan burutuko diren borroka asteei.

Haurreskolak Patzuergoko borroka astea diseinatu dugu,

-**hilak 7an**: gure eskaerekin **bidalketa masiboa** egingo diegu Hezkuntza sailburua den, Cristina Uriarteri, eta Haurreskolak Partzuergoko gerentea den, Maite Larrañagari.
- **8an**: Gure ikasleen adinak eta haurreskolen funtzionamenduak ez dutenez uzten kontzentrazioak edota ekimen bateratuak egiteko aukerarik, **ebakuazio simulazioak** egingo ditugu haurreskola guztietan.
- **9an: GREBA**. Eibarren, Haurreskolak Partzuergoaren egoitza parean, **kotxe karabana eta elkarretaratzea** egingo dugu.
- **Astean zehar, borroka paisaia** mantenduko dugu,... eta 10ean, bereziki, Haurreskoletan amantalak eskegita (kanpoan edo barruan), beltzez jantzi edota larrialdietako txalekoa jantzi....
-Eta **abenduaren 12an sektore guztietan greba** deitu dugu.

Sindikatuon ustez, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritza azken urte luzeetan inposatzen ari den murrizketak eta hezkuntza politika errotik aldatzea eta honek guztiak eraginda egungo hezkuntza publikoan sufritzen ari garen egoerari buelta ematea.

Hezkuntza Sailari eta Haurreskolak Partzuergoari dei egiten diegu sektorea aintzat hartu eta benetako negoziazio prozesu bat abian jarri dezala, lan-baldintzak hobetu eta egungo Haurreskolak Partzuergoak dituen behar eta erronkei modu egokian erantzuteko.

Euskal Herrian, 2017ko azaroaren 3an.

LAB steilas ELA EUSKAL SINDIKATUA



## Haurreskolak Partzuergoan lan baldintzak hobetu, hezkuntza eraiki!

**Estimada familia:**

El curso pasado, llevamos a cabo movilizaciones y huelgas con gran seguimiento en la enseñanza pública no universitaria de la CAPV, que tuvieron un seguimiento masivo en las escuelas infantiles del Consorcio Haurreskolak. La intención no era otra que dejar en evidencia la grave situación que estamos soportando estos últimos años las Haurreskolak y escuelas, las trabajadoras y trabajadores, alumnos y alumnas y las familias, además de dar a conocer las medidas que nos parecen imprescindibles para solucionar esta situación.

Tanto el Gobierno Vasco como el Consorcio Haurreskolak no han respondido aún a nuestras reivindicaciones. A pesar de hacer un ejercicio formal de convocar la Mesa de Negociación, no han propuesto ninguna medida concreta que sirva para dar la vuelta a esta grave situación.

Tal y como venimos reivindicando los últimos meses, en lo referente a Haurreskolak, los sindicatos LAB, STEILAS y ELA, teniendo en cuenta que desde 2009 tenemos los sueldos y el convenio congelados, para dar pasos hacia la salida de esta situación, vemos necesario pactar sobre las siguientes medidas:

- **Impulsar la estabilidad de la plantilla del Personal de administración y Educadores.** La tasa de contratos eventuales en el Consorcio Haurreskolak supera el 41% y en el caso de los trabajadores de administración es del 100%.
- **Aplicar criterios de igualdad en los ratios por aula.**
- **No condicionar las sustituciones a la hoja de asistencia.**
- **Sustituir las licencias, permisos y días de libre disposición**. No sustituir supone aumentar la carga de trabajo y empeorar la calidad del Servicio.
- **Garantizar un servicio de ocho horas a las familias en las Haurreskolas pequeñas.**
- **El tiempo de coordinación debe implantarse según el número de aulas abiertas.**
- **Recibir el plus de coordinador de forma proporcional al tiempo dedicado.**
- **Facilitar la jubilación, con un acuerdo sobre el Contrato de Relevo.** Hoy en dia la aplicación del contrato de relevo termina el 31 de diciembre de 2018.
- **Pagar el 100% de las bajas desde el primer día**
- **Recuperar el poder adquisitivo.**
- **No modificar el reglamento mediante Decretos.**
- **Gratuidad en Haurreskolak.**

Y de acuerdo con el resto de reivindicaciones de otros sectores de la Educación Pública:

- ✘ Aumentar la inversión en Educación. (Partiendo de la media europea llegando al 6% progresivamente).
- ✘ Sacar de nuestros centros escolares la LOMCE y anular su mera copia , Heziberri.
- ✘ Dejar la mercantilización de la Educación a un lado, para que ésta sea un instrumento de superación de dificultades, desigualdades y promueva el desarrollo personal y social. Basándose en la cohesión social, integración, igualdad, diversidad y coeducación).
- ✘ Desarrollar un programa de inmersión en euskera que consiga alumnado plurilingüe.
- ✘ Tomar en cuenta la opinión y participación de Sindicatos, ciudadanos y ciudadanas y agentes educativos, ante la posible Ley de Educación.

Hasta ahora, ni Gobierno Vasco ni el Consorcio Haurreskolak han demostrado voluntad de presentar propuestas sobre estas reivindicaciones. Es por ello, que el Departamento de Educación y el Consorcio Haurreskolak no nos han dejado otro camino que el de seguir con las movilizaciones al inicio de este curso.

Desde septiembre hemos llevado a cabo diferentes movilizaciones y hoy ha llegado el momento de dar inicio **a una semana de lucha en el Consorcio Haurreskolak.** Este formato se irá repitiendo en el resto de sectores de la Educación Pública no universitaria en las próximas semanas.

El diseño de la semana es el siguiente:

- ➔ **7 de noviembre,** realizaremos **el envío masivo de emails y faxes** (en los que se reflejarán nuestras reivindicaciones) tanto a la consejera de educación del Gobierno Vasco Cristina Uriarte, como a la Gerente del Consorcio Haurreskolak, Maite Larrañaga.
- ➔ **El día 8:** Realizaremos **un simulacro de evacuación en todas las Haurreskolas,** dado que por la edad del alumnado y el funcionamiento en Haurreskolak no hay posibilidad de hacer concentraciones.
- ➔ **El jueves día 9: HUELGA.** Nos reuniremos en Eibar, frente a la sede del Consorcio Haurreskolak. Realizaremo**s una concentración y una caravana de coches.**
- ➔ **A lo largo de la semana, mantendremos el paisaje reivindicativo en los centros de Haurreskolak,** sobre todo el día 10, que se colgarán en el exterior o interior de los centros las batas de trabajo, se vestirá de negro y con chalecos amarillos, para simbolizar la situación de emergencia en la que nos encontramos.

**Así mismo, el día 12 de Diciembre hemos convocado una huelga en todos los sectores de la enseñanza pública.**

Los sindicatos exigimos al Gobierno Vasco que deje de lado los recortes que ha impuesto los últimos años y cambie de raíz su política en educación, y que todo ello revierta en pro de la Educación Pública.

Hacemos un llamamiento al Departamento de Educación del Gobierno Vasco y a la gerencia del Consorcio Haurreskolak para que tengan en cuenta al sector y pongan en marcha un proceso de negociación real que mejore las condiciones laborales y responda a las necesidades actuales del Consorcio Haurreskolak.

En Euskal Herria, a 3 de diciembre de 2017.

LAB steilas ELA EUSKAL SINDIKATUA